

KOSTUEN EGITURAK

● KOSTU FINKOAK

Kostu hauek, garrantzi handia izango dute, enpresa bakoitzak duen betebeharra delako, eta ekoizpen ona edo kostu horiek gainditzten dituzten diru-sarrerak bermatu behar dira. Izan ere, kostu finkoak mantendu egiten direla aipatzekoa da, lortutako salmentak kontuan izan gabe.

1. **Txantiloia ordaintzea.** Hileko ekoizpena inportatu gabe mantentzen da. Gainera, gure enpresan hainbat langile izango ditugu. Alde batetik, sektore pribatuan lan egingo dutenak daude hala nola, kafetegian egongo direnak, animaliak zainduko dituztenak... Bestalde, sektore publikoan lan egingo dutenak egongo dira, horiei udaletxea ordainduko die.
2. **Kafetegiaren alokairua.** Gure enpresa aurrera eramateko, kafetegia ezinbestekoa da, gure lan esparrua izango delako.
3. **Zergak.** Merkataritza-jardueraren baimenei lotutako tributuak eta ordainketak beste kostu finko bat izango da, normalean urtekoa.
4. **Aseguruak.** Gure langileak egoera hobereetan lan egitea nahi dugu. Horretarako, langileen nahiz enpresaren ondasunen polizek ere kostu iraunkorra ekarriko dakarte.
5. **Zerbitzuak (argia, gasa, ura).** Hilabetero zerbitzu batzuk ordaindu behar izango ditugu gure kafetegia mantendu ahal izateko. Egia da prezioa aldakorra izan daitelekela, baina normalean mantentzen da.

● KOSTU ALDAKORRAK

Kostu aldakorrak gure enpresaren produkzioarekin zerikusia duten gastuak izango dira. Izan ere, kostu aldakorrak lanaren arabera neurtzen dira, ez baita beti salmenta kopuru bera izaten, ezta makina, material edo baliabide baten erabilera bera ere. Alabaina, aipatzekoa da hilerok kalkulatzeko direla (normalean), eta lotura estua dutela merkaturako eskaintzarekin eta eskariarekin.

1. **Lehengaiak.** Gure kafetegirako elikagaiak eta edariak aldatuz joango dira, hilabetearen arabera. Kontsumitzaileari gehien gustatzen zaionaren arabera erosiko ditugu elikagaiak.
2. **Konponketak.** Gure kafetegian aldaketak egin nahi baditugu edo zerbait apurtzen bada diru extra bat jarri behar izango dugu.
3. **Animalientzako tratamenduak.** Gure animaliren bat gaixorik badago tratamendu bat erosi behar izango genioke.

● ZEHARKAKO KOSTUAK ETA KOSTU ZUZENAK

Ondoren, gure enpresaren kostu zuzenak eta zeharkako kostuak aztertuko ditugu. Hau da, gure enpresaren kostuak ekoizpenarekin zuzenean lotuta daudenak eta gure enpresaren kostuak ekoizpen-prozesuari eragiten diote edo zenbait produkturi eragiten diotenak.

Hasteko, lehen esan dudan bezala kostu zuzenak ditugu. Hauek produktu bati zuzenean esleitu dakizkiokeen kostuak dira, produktu horri beste inongori ez dagozkionak. Gure enpresa bi zatitan banatuta dagoenez, kafetegian eta eskantzen dudgun zerbitzuan, bakarrik daude kostu zuzenak kafetegi aldean:

1. **ELIKAGAIK:** Kafetegian egunero behar ditugu elikagaiak, janaria egiteko. Adibidez, gosaltzeko tortilla egiten badugu, patatak, arrautzak eta tipulak behar ditugu eta horiek dira gure kostu zuzenak. Beste adibide bat izan ahal da edariak, esnea, zukuak, refreskoak etb
2. **KOSTUAK ANIMALIEN OSASUNERAKO:** Animaliak behar dituzten medikamenduak edo tratamendu fisikoak eta beraien janaria ere kostu zuzenak dira zeren eta animaliak zerbitzuaren parte dira eta beraiei zuzenean eragiten die. Adibidez, urtero jarri behar ditugun txertoak parasitoak kentzeko edo animalia batek gaixorik jartzen bada eman behar ditugun medikazioa edo albaitariaren gastuak, etb.

Eta lehen esan dugun bezala gure enpresaren zeharkako kostuak ere aztertuko ditugu. Hauek berriz, produktu bati soilik egotzi ezin zaizkion kostuak dira, produktu-multzo bat ekoitzi edo jarduera sail batzuetan burutzeko sortu direlako.

1. **ANIMALIEN TRATAMENDU PSIKOLOGIKOAK:** Lehen asaldu dugun bezala ez ditugu zuzenean txakurtegitik ateratako animaliak zerbitzua egitera jarri, eta horretarako tratamendu psikologikoak egin behar ditugu jakiteko nola dauden eta noiz egongo diren prest zerbitzua egiteko. Eta hori guztia zeharkako kostuak dira.
2. **PUBLIZITATEAREN KOSTUAK:** Dakizuenetz aurretik azaldu dugulako, gure enpresa publizitatean inbertituko du. Sare sozialen bidez batez ere, eta hori guztia eragiten dituen kostuak zeharkako kostuak dira.
3. **ERABILTZEN DUGUN TRANSPORTEAREN KOSTUAK:** Udalarentzako lan egiten dugunean animaliak familien etxeetara eramaten ditugu, profesional batekin. Honek auto batean eramaten ditu eta autoaren gastuak ere zeharkako kostuak dira. Adibidez, gasolina, autoaren berrikuspena etb.

- **HASIERAKO INBERTSIOAREN KOSTUAK:**

Azkenik, gure enpresak hasierako inbertsio-plan bat izango du; horretarako, gure negozio berriari ekiteko behar dugun guztia pentsatu dugu. Gure inbertsio-planean hiru elementu bereiz ditzakegu:

1. Enpresa eratzeko gastuak, notarioari ordaintzeko datuak dira. Gastu horiek beharrezkoak dira eskritura publiko bat emateko, merkataritzako negozioa baita. Notarioari ordaintzeaz gain, Merkataritza Erregistroari ordaindu behar diogu inskripzioa, eta, azkenik, Ogasunari zergak, negozio guztiak bezala. Azkenik, elementu honetan behar ditugun lizentzia eta baimenen ondoriozko gastuak ere sartzen dira.
2. Ibilgetu-ondasunetan, enpresaren epe luzeko jardueraren inguruko gastuak daude. Ondasun horiek bi zatitan banatu ditugu:
Alde batetik, ez materialak, patenterako eta bestalde materialak, kafetegia eta garraioa eraikitzeko.
3. Aktibo zirkulatzaila hornitzaileei eta langileei ordaintzeko da. Elementu hori da zabalena, gure enpresak hornitzaile asko baititu, hala nola txakurtegia. Beste alde batetik, elementu honetan gure lokalaren errentaren ordainketa sartzen da, hau da, kafetegia, gure zerbitzu publikoa. Horregatik, gastu guztiak kontuan hartuta, gure hasierako inbertsioa 3.000€-koa izango da.